



Udal hauteskundeak

# Odonen erreinua

Maiatzaren 25eko hauteskundeek bi datu nagusi utzi dituzte agerian Donostian. Batetik, Odon Elorzak donostiarren artean duen arrakasta. Bestetik, debekuak debeku, Baga Boga plataformak 10.000 boto lortu dituela, ofizialki baliogabeak diren arren.

	1999ko udal hauteskundeak	2001eko hauteskunde autonomikoak	2003ko udal hauteskundeak
PSE-EE	29.977 (% 30,45)	21.846 (% 18,14)	33.349 (% 32,6)
EAJ-EA	23.440 (% 23,8)	46.244 (% 38,4)	27.855 (% 27,2)
PP	20.943 (% 21,2)	32.045 (% 26,6)	22.260 (% 21,8)
EH / Baga Boga	19.567 (% 19,87)	12.426 (% 10,32)	10.120 (% 9,9)
EB-IU	3.119 (% 3,17)	7.249 (% 6,17)	4.895 (% 4,7)
Aralar	—	—	3.214 (% 3,1)
Plazandreok	644 (% 0,65)	—	611 (% 0,5)

**B**este behin ere argi geratu da Odon Elorzak donostiarren botoak lortzeko gaitasun berezia duela. Elorzak 1999ko udal hauteskundeetan baino 3.000 boto gehiago lortu ditu eta 2001eko hauteskunde autonomikoetan PSE-EEK esku-ratutakoak baino 11.000 gehiago. 'Odon Elorza efektua', gainera, nabarmen ikus daiteke udal hauteskundeetako eta foru hauteskundeetako datuak alderatuz gero. Donostian, PSE-EEK foru hauteskundeetan udal hauteskundeetan baino 8.100 boto

## Botoak auzoz auzo [\*]

	BOTOAK	PSE-EE	PNV-EA	PP	BAGA BOGA	EB-IU	ARALAR	BESTEAK	ZURIAK	BALIOGABEAK
ALTZA	11.361	5.160	2.007	1.617	1.222	667	240	72	159	58
BIDEBIETA	3.747	1.509	721	747	415	174	93	14	51	23
ULIA	2.238	648	600	442	286	112	94	9	23	11
INTXAURRONDO	8.335	3.023	1.831	1.297	1.114	616	301	-	108	45
GROS	12.529	4.076	3.370	2.883	1.039	534	358	71	144	49
EGIA	8.280	2.919	1.883	1.363	1.206	389	305	60	117	43
LOIOLA	2.702	958	676	477	326	118	72	13	33	29
MARTUTENE	1.432	407	396	241	208	81	51	8	26	14
AMARA BERRI	15.562	5.087	4.102	4.168	815	636	402	89	202	61
AMARA ZAHARRA	4.573	1.357	1.332	1.118	424	194	148	-	-	-
AIETE	5.288	1.649	1.440	1.409	282	226	145	110	-	27
ERDIALDEA	6.961	1.485	2.219	2.336	368	194	150	64	21	124
PARTE ZAHARRA	4.021	833	1510	551	665	190	172	34	45	21
ANTIGUA	8.539	2.089	2.814	2.008	780	368	303	47	107	23
IGELDO	600	60	197	103	167	33	29	3	5	3
AÑORGA	1.453	255	595	118	308	49	101	1	16	10
IBAETA	6.406	1.777	2.072	1.434	495	288	208	32	83	17
GUZTIRA	104.027	33.292	27.765	22.312	10.120	4.869	3.172	627	1.140	558

\*Datuak Baga Bogak jakinarazitakoak dira, plataformaren botoak aintzat hartu dira eta. Boto gutxi batzuk gorabehera, emandako datu ofizialekin bat datoz.



gutxiago lortu ditu, eta bigarren indarra da, EAJ-Earen atzetik. Eta, nondik nora doaz boto horiek? Argi dago Batzar Nagusietarako EAJ-Eari botoa eman dioten 6.000 lagunek, udal hauteskundeetan Elorzaren alde egin dutela. EB-IUK ere Batzar Nagusietarako hauteskundeetan udal hauteskundeetan baino 1.500 boto gehiago lortu ditu. Argi dago, beraz, PSE-EEko botoemaileak ez ezik, beste sektore batzuetakoak ere erakartzeko gaitasuna duela Elorzak.

Elorzak emaitza onak lortu dituen arren, Udal Gobernu osatzeko negoziazioak hasi beharko ditu. Negoziazio hauek aurrera eramateko "askatasun esparru zabala" eskatu du Elorzak, "alderdikeriak bazter utzita". Hala, alderdi

guztiekin hitz egiteko asmoa azaldu du, "askotariko gobernu" osatu nahian.

Bestetik, aipagarria da EAJ-EAK duela lau urteko emaitzak hobetzea lortu duela, baina argi ikusi da Roman Sudupe ez dela Elorzari itzal egiteko apusturik egokiena izan. Bestelako hauteskundeetan EAJk eta EAK emaitza hobeak lortu izan dituzte askotan Donostian.

PPri, dagokionez, duela lau urteko botoei eutsi die, baina ez ditu espero emaitzak lortu. Izan ere, Elorzari alkatetza kentzea zuen helburu.

EB-IUK, berriz, ezarritako helburua lortu du: duela lau urte galdutako zinegotzia berreskuratzea. Aurrerantzean ordezkari bat izango du Udalbatzan.

### Baliogabetutako botoak

Donostian, ofizialki baliogabe gisa kontatutako botoak 10.665 izan dira. Baga Bogak egindako kontaketa arabera, haietatik, 10.120 plataforma honi emandakoak dira. Honek adieraziko luke plataforma honek baduela hirian oinarri sendoa; alde aurretik jakina zen Baga Bogari emandako botoa ofizialki baliogabetzat joko zutela, baina hala ere, donostiarren ia %10ak plataformaren alde egin du.

### Batzar Nagusietan gehiengo

Foru hauteskunderi dagokienez, nabarmentzekoa da EAJ-EAK gehiengo osoa lortu duela Gipuzkoan, eta beraz, Gobernu osatzeko ez duela inolako arazorik izango.

## EAJ-EAko aurpegi berriak

Banaketa ofizialaren arabera, Udalbatzan hurrengo agintaldian egongo diren 27 zinegotzien artean, aurpegi berriak ditugu. Dena dela, bai PSE-EEK eta bai PPK orain arteko taldeari eutsi diote. PSE-EEko hamar zinegotzietatik bederatzi aurreko agintaldian ere Udalbatzan izan ziren—Odon Elorza, Ramón Etxezarreta, Susana Corcuera, Arritxu Maraño, Susana García Chueca, Jorge Letamendia, Ernesto Gasco, Enrique Ramos eta Alberto Rodríguez— eta Ana Rivilla da kargua lehengoz hartuko duen bakarra.

PPn ere berrikuntza bakarra dago zinegotzien artean: Jose Angel Encinas, aurreko agintaldia, Lasarteko zinegotzi izandakoa. Gainerako seiak orain arte zinegotzi izandako Maria San Gil, Maria Jose Usandizaga, Carlos Sancho, Javier Urbistondo, Ramon Gomez eta Mari Carmen Rubio dira.

EAJ-EAren zinegotzi taldean aldaketa da nagusi. Jaione Arratibel da aurreko agintalditik jarraitzen duen bakarra, eta gainontzeko zortziak lehen aldiz izango dira Donostian zinegotzi: Roman Sudupe, Arkaitz Millan, Patxi Baztarrika, Pilar Elgoibar, Jokin Ezkerro, Mikel Ubillos, Joakin Telleria eta Xabier Ezeizabarrena.

EB-IUko Duñike Agirrezabalaga ere lehen aldiz izango da zinegotzi.

Baga Boga plataformak azaldutakoaren

arabera, 10.120 boto lortu ditu hauteskundeetan eta horiek kontuan hartuz gero, plataformak hiru zinegotzi izan behar litzuzke. Baga Bogak ordezkari horiek izateko eskubidea aldarrikatu du. Zinegotzi horiek Josetxo Ibazeta —orain arte zi-

negotzi izandakoa—, Maixel Gaztañaga eta Alaitz Jauregi lirateke. Horren arabera, EAJ-EAko Xabier Ezeizabarrenak, PPKo Jose Angel Encinasek eta EB-IUko Duñike Agirrezabalagak zinegotzi postua galduko lukete.

